

SOS
 S A H A R A



**ESKERRIK
 ASKO zure
 laguntzagatik!**



KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

KOMUNITATEAK

- Auzo komunitateen administrazioa
- Etxebizitzak, garajak, industiak...
- Jaurerriaren dirulaguntzen transmisioa

AHOLKULARITZA

- Fiskala
- Laborala
- Kontabilitateak
- Aseguruak



IRAZABAL
clínica dental

Antonio Murillo doktorea

PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA

Ainhoa Zulueta doktorea

ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA

Susana Sierra doktorea

ORTODONTZIA, OKLUSIOA

ORDUTEGIA:




Astelehenetik ostegunera: 10-14 / 16-20h

Ostiraletan: 10-14 / 15-19h

IRAZABAL HORTZ-KLINIKA

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52

www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com



**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Maider Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76**AZALA:**

J.L. Gorostegi

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

IKUSIXAN BISTAN/BEHIAN.- Dirudienez, antza denez. "Ikusixan bistan, harek esan ebana guzurra".**(BIHOTZIAN) IKUTU.-** Hunkitu. "Esan zetsazen berba samurregaz ikutu eban bihotzian".**ILLINTXI/IRINTZI.-** Ilentia, erabat erre gabeko egur zatia. Erderazko 'tizón'. "Illintxixa kafe lapikuan sartzia oitutzen zan".**ILLUNPE.-** Kartzela, modu figuratuan esanda. "Berba egin ebalako, illunpian jarri eben".**ILOBALA/IROBALA.-** Hari gogorra, kordela. 'Hilo de embalar'. "Lotuizu ilobaliakin paketia".

ESKUTITZAK

OKERRAK ZUZENTZEN

Azken zenbakian kaleratutako berrien artean, badira berri bi zuzentzeko modukoak: horrela, Eibarko biztanleen kopuruaren notizian, "66 urtetik gorak 6.273 lagun dira (3.708 gizonezkuak eta 2.565 gizonezkuak)" zioenean, askok ulertuko zenuten moduan, 3.708ko kopurua emakumezkoen zegoen, adin tarte horretan ematen baita kopuru osoaren emakumezkoen aldeko joeraren ia alde guztia, hortik beharkean adinetan parekatuta baitaude bi generoen arteko kopuruak.

Bestalde, Gureak lantegikoei urtero eskaintzen dieten bazkariaren inguruko notizian, Auzokoak elkartearen partaideen artean izen batek alde egin zigan eta Edozer, Erdi-Bana, Urkusu-Gain, Jaiki, Denon Sahatsa eta Behekuak soziedadeekin batera, **Dorrepek** ere antolatzen du ohitura bikaina bihurtu den bazkari hori.

Erredakzioa

asteko

HEMEROTEKA

esaldia

"Gerra-kazetaritza ikaragarri aldatu da: sasoi batean, Afrikan pare bat hilabete egin eta gero, bueltatzerakoan lehen orrialdean joaten zen zure erreportajea; orain, aldiz, informazio bat ematerakoan minutu eta erdi atzeratzen bazara, notizia hori zaharra da dagoeneko, ordurako mundu guztiak ezagutzen baitu. Mugikorrek, zuzeneko konexioak eta portatilak aspaldiko erreportariekin amaitu dute"

(Arturo Pérez-Reverte, idazlea)

"Alzhéimer-a autoa non laga duzun ahaztu baino ehun urte lehenago hasten da. Hala ere, hizkuntzak ikasteak alzheimer-a prebenitzen duela dioten horrek ez du inolako funtsik. Ariketa intelektualak gaixotasuna hilabete batzuk atzeratzea besterik ezin du lortu. Hiltzeko ere, horrelako gaixok ez dituzte arazo larririk behar: neumonia bat edo arnas arazo bat nahikoa izaten dute, euren buruaren jabe ez baitira"

(Dennis J. Selkoe, Harvard-en doktorea)

EIBARKO
UDALAGIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIAEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

Bihondakiñak batzeko kontenedore marroiak

HERRIKO HAINBAT TOKITTAN KONTENEDORE MARROIAK IKUSI LEIKEZ HONEZKERO ETA SOSIGUZ SOSIGUZ beste kontenedore gutzien aldamenian holako bat topauko dogula aurreratu dabe Mankomunidadeko ordezkariak. Aurreko barixakuan Arcadio Benítez Debabarrena Mankomunidadeko presidentiak egindako presentaziñuan azaldukuari jarraituta, bihondakiñak batzeko erabiliko diran 18 kontenedore ipiñiko dittue hasteko (Ardantza, Arra-

gueta, Arragueta Zeharra, Bidebarrieta, Bittor Sarasketa, Blas Etxebarria, Errebal, Estaziño, Fermin Calbeton, Ibarzurte, Ifar Kale, Julian Etxebarria, Muzategi, Pagaegi, Plaza Barria, San Agustin, San Juan, Toribio Etxebarria, Urtzaile, Urkizu eta Zuloagatarren kaltetan), baiña lau hillebeteren bueltan danera 74 bat kontenedore kokatuta eukitzia dake aurreikusita. Kontenedoria erabili nahi daben herritarrek pegoran topauko daben orri-xan izena emon biharko dabe



Hamazortzi kontenedore marroi ipiñi dittue Eibarren lehelengo fase honetan. / SILBIA HERNANDEZ

(edo 943670249 telefonora etxian bihondakiñak pillatzen juateko ontzi berezixa, poltsa konpostagarriak eta kaleko kontenedoria zabaltzeko giltza emongo detse. Bihondakiñak elikagaixen eta lorezaintzatik

sortzen dira batez be eta Benítezen berbetan, "urtian jasotzen dittugun 22.270 tonelada zaborretik %43 (9.500 bat tonelada) bihondakiñak dira eta horretxek birziklatzia billatzen dogu kanpaiña barri honekin".

Eibarko gerrako umiendako deia


UDALEKO EGO IBARRA BATZORDIAK GERRA SASOIAN HERRITTIK EBAKUAU ZITTUEN EIBARKO UMIEN ZERRENDIA OSATU nahi dau eta, horretarako, heritarren laguntasuna eskatu dabe. Ego Ibaratik azaldu deskuenez, "gerra denporan (1936-1939) ume mordua atzerriara (Frantzia, Errusia, Belgika, Ingalaterra...) eruan zittuen, gatazkatik aldendu nahixan. Umiak kanpora bidaltzen 1936xan bertan hasi baziran be, agintarixak antolatutako espediziño ofizialak 1937xan hasi ziran egitten eta handik urte batzuetara umietako batzuk bueltau ziran arren, beste batzuk betiko erbesteratu ziran". Historixaren pasarte hori ez ahaztuzeko, kanpora eruandako umien zerrendia osatu nahi da-



be eta, horretarako, Enara García Martínez ikerlarixa hartu dabe. Honezkero 130 bat umeren zerrenda probisional osatu dabe baiña, zerrendia ahalik eta kompletuena izateko, Ego Ibarrak deia luzatu nahi detse Eibarren gerrako ume izandakueri, haren famelixa eta gertukueri, baita autu horrekin lotutako argazki edo dokumenturen bat dakeneri be, "hartara, artxibuak eta liburuak emoten daben informaziña ahozko testigantza bidez osatzeko". Ikerlarixarekin harremanetan ipintzeko Ego Ibarra batzordiarren bulegora jo leike zuzenian (udaletxian, 2. pisuan), telefonoz deittu (943 70 84 23 zenbakira, atzeritik 034 943 84 23) edo emaila idatzi egoibarra2@eibar.net edo egoibarra@eibar.net helbidietara.

Zuloagatarreneko parkia barriztatu dabe



MARTITZENAZ GEROZTIK ZULOAGATARRENEKO PARKEKO ZIBURU-ZAURAK KANBIXATZEKO eta parkia txukuntzeko biharrian jardun dabe eta, okerrik ez bada, jolaserako ekipamendu barrixa gaur bertan erabiltzeko moduan izatia espero eben biharren arduradunak. Industrias Agapitok egindako biharrak 35.000 euroko



aurrekontua euki dabe eta honako jokuak ipiñi dittue: jolas aniztarako balixo daben triangelu formako lau dorriekin osatutakua (zigzag itxurako parrapasa, zubixa, rokodromua eta sare modukuak batzen dittuan gunia), eskalatzeko beste estruktura bat, balantzaka ibiltzeko figura eta kabi itxurako ziburu-zaura (Urkizun eta beste parke batzutan oso harrera ona euki dau azken horrek).

Grabadore bolia Etxeberriarendako

BARIXAKUAN INAUGURAU EBEN PORTALEAN "ETXEBERRIA: LEHEN URTEA", Roberto López Etxeberria diseñadore eibartarraren biharrari eskindutako erakusketia eta, ekitaldixa aprobetxautu, errekonozimendu modura Miguel de los Toyos alkatiak grabadoriaren bolia emon zetsan iaz Cibeles pasarelan diseñadore gazte onenaren sarixa bigarrenez jarraixan eskuratu eban moda sortzaillari. Otsailaren 5era arte zabalik egongo dan erakusketan (martitzenetik domekara, 18.30xetatik 20.30xetara) saritutako koleziño bixetako jantzixak eta irudixak ipiñi dittue ikusgai.



Diseñadoriari eskindutako erakusketia barixakuan inaugurau zebe. / LEIRE ITURBE

autuan

HIRIGINTZA BATZORDIA

Eibarko Hirigintza Planeamendurako aholkularitza batzordiarekin bat egin nahi dabenak horretarako aukeria zabalik dauka. Horretarako otsailaren 10erako eskaeria Pegoran presentau biharko dau (udaletxeko beheko pisuan), beste agiri batzuekin batera. Bertan eskatu leike autu honen gaineko informaziño zabalagua.

FITUR

Debabarrenako turismo eskintza domekan itxiko daben Fitur azokan ordezkaturta egon da aurten be. 32. ediziñua betetzen daben ferixia sektoreko inportantienetakua da eta Eibarko alkati, Barakaldokuarekin batera, han izan da Espaiñako Txirindularitza Itzuliaren ibilbidiaren gaineko aurkezpena egitten, etapetako batek gure herrixa ziharkatuko dabela-eta.

1.400 lagunek erabiltzen dabe wifi publikua

UDALAK GOWEX ENPRESIAREKIN KONTRAUTA DAKAN WIFI INTERNETERAKO SARE PUBLIKUA eta duanekua registraitako 1.400 erabiltzaille izatera aillegau da, enpresak berak emondako azken dato estadistikuetan jasotakuari jarraituta. Untzagan eta Urkizun eskintzen hasittako zerbitzua Toribio Etxebarria eta San Andres pasialekura hedatzeko probak egitten hasitta dagozela be argittu dabe. Urtebeteko tartian hillebete batetik bestera gero eta jende gehixago jua da zerbitzua erabilli ahal izateko web orrixan izena emoten eta iazko abenduan marka guztiak hautsi ziralaz azaldu dabe, 4.458 sesiño registratxian.





publi resa

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net

Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ **943 12 02 00** Fax: **943 12 02 04**

1 Kardiologia	10 Barne Medikuntza
2 Zirugia	11 Radiologia
3 Dermatologia	12 Urologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	13 Traumatologia
5 Anali Klinikoak	14 Koloproktologia
6 Ortodontzia	15 Erizaintza
7 Otorrinolaringologia	16 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
8 Pediatria	17 Foto-depilazio Unitatea
9 Psikiatria	



LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar

CADENA SER

104,0 FM

aste
1.900
datua

langabetu registrau zittuen Eibarren 2011n, langabezia-tasa %11'1ian kokatuta. Krisixaren hasieratik kopurua bikoiztu egin da: 2007xan 925 langabetu eguazen, 2008xan 1.215 eta hortik aurrera etenbarik igotzen juan da.

Javier Eguren alkate-ohia hil da

EGUAZTEN ARRATSALDIAN SAN ANDRES ELIZAN EMON ZETSEN AZKEN AGURRA

Javier Eguren 1958-1962 bitartean Eibarko alkate izandakua. 94 urterekin hil dan Eguren alkate zala Armerixa Eskolaren sorreraren 50. urteurrena ospatzia egokitu zan eta orduan sasoiaren eskolako zuzendarixa zan Jose Ormaetxearekin batera ospakizunaren inguruan bihar haundixa egiñ ebala azaldu deskue eskolatik. Formaziño Profesionaleko juntako presidentia be izan zan.



Javier Eguren 1958-1962 bitartean Eibarko alkate izandakua. 94 urterekin hil dan Eguren alkate zala Armerixa Eskolaren sorreraren 50. urteurrena ospatzia egokitu zan eta orduan sasoiaren eskolako zuzendarixa zan Jose Ormaetxearekin batera ospakizunaren inguruan bihar haundixa egiñ ebala azaldu deskue eskolatik. Formaziño Profesionaleko juntako presidentia be izan zan.

Gizartekintza arloko murrizketak salatu ditu Bilduk

ASTE HONETAN BILDUKO ORDEZKARIXAK EGINDAKO AGERRALDIXAN GIZARTE ZERBITZUETAN egindako murrizketak salatu dittue eta ardurak Diputaziño, Jaurlaritza eta Udalaren artian banatuta egon arren, azken horrek murrizketen gaiñian izandako jarrera "guztiz ezkorra" izan dala azpimarratu nahi izan dabe, "aurrekontuak oindiok be gehixago murriztu dittu-eta". Bilduk emondako datueri jarraituta, etxerik-etxerako laguntza zerbitzuetarako aurrekontuan murrizketia 60.000 eurokua izan da (jazkuaren bikoizta). Bestalde, eta iaz ezustian Diputaziñuak eta Kutxa Fundaziñuak aurreratutako partideri esker San Andres egoitzarendako partida 200.000 euro bajau dabela azaldu eben eta, gaiñera, "famelixak, krisixa dala eta, sekula baiño laguntasun gehixagoren premiñian daguazen honetan" horri laguntzeko gizarte larrialdixetarako laguntzetan be murrizketa haundixa (60.000 eurokua) egin dala salatu dabe. Inmigraziño, bardintasun eta bestelakuetan be murrizketak egon dirala gaiñeratu eben Bildukuak.



Horrez gain, Bilduk aste honetan bertan idatziz salatu nahi izan dau ingurugiro batzordia ez dala legealdixaren hasieratik alkartu eta gaixarekiko sentikortasun faltia aurpegiratu detsa udal gobernuari, arlo horri eskindutako partidia presuestuan %44 bajau dabe-eta.

Horrez gain, Bilduk aste honetan bertan idatziz salatu nahi izan dau ingurugiro batzordia ez dala legealdixaren hasieratik alkartu eta gaixarekiko sentikortasun faltia aurpegiratu detsa udal gobernuari, arlo horri eskindutako partidia presuestuan %44 bajau dabe-eta.

Armerixa Eskolako mendeurrenaren ekitaldixa

DATORREN ASTIAN, EGUENIAN, 18.00ETAN EHINGO DETSE ARMERIXA ESKOLAKO ARETO NAGUSIXAN eskolaren sorreraren mendeurrenari, bestiak beste Isabel Celaá Hezkuntza, Unibersidade eta Ikerketa sailburua, Martin Garitano Gipuzkuako Ahalduen Nagusixa eta Miguel

de los Toyos alkatia batuko dittuan ekitaldixarekin. Mendeurrenaren presentaziñua José Luis Novoa eskolako zuzendarixak, Jose Mari Ulazia Ikasle Ohien alkarteko presidentiak eta Miguel de los Toyos alkatiak astelehenian egiñ eben eta, bestiak beste, ikasle izandakuen datu-basia egu-

neratzen diharduela eta martxua aldian omenaldixa egitteko asmuarekin ikasle-ohi aitzindarixa billatu nahi dabela azaldu eben. Horrekin batera, mendeurrenaren kartel lehiaketaren irabazlia eta mendeurrenari eskindutako web orrixa datorren asteke ekitaldixan ezagutzera emongo dittuela aurreratu eben.



Mendeurrenaren kartela datorren astian presentauko dabe. / SILBIA HERNANDEZ

Patxi Usobiagarekin zabalduko dabe txotxa

GAUR ARRATSALDERAKO PREPARAU DABE EIBARREN TXOTXA ZABALTZEKO EKITALDI BEREZIXA herriko sagardotegi bakarrian, Ipuruako Iruki sagardotegixan, eta okasiñorako Patxi Usobiaga eskalatzaille eibartarra gonbidatu dabe, sasoi barriko lehelen-go kupela berak zabaltzeko. Edozelan be, aurretik, 18.00ak aldera sagardotegi inguruan kalejiran ibilliko dira, ekitaldixa girotzen eta 19.00ak aldera sagardo moeta diferentia bereizten ikasteko


hainbat aholku emongo dittue horretarako preparau daben sagardo-dastaketan. Dastatzia sagardotegixan bertan egingo da, Egoitz Zapiainek gidatuta. Usobiagak txotxa zabaltzia 21.00ak aldera izatia dago aurreikusitta eta, jarraixan, Iruki sagardotegixan omenaldi-afarixa ospatuko da. Bertako ugazabak esandakuaren arabera, edozeiñ azken momentuan animau ezkeru afaltzen geratzeko arazorik ez dago, nahikua toki dake-eta.



Txotxa baiño lehenago, kalejira eta dastaketia antolatatu dittue.

Bruselaren ustetan, ez bada legez zehazten lanpostuetan portzentaje jakin bat emakumiena izatia, ez da gizon eta emakumien arteko bardinttasuna lortuko 50 urtetan. Beste batzuen iritziz, lanpostu batian jarduteko merituak euki beharko ziran bakarrik kontutan, emakumia ala gizonezkua izan.

Emakumien kuota lanpostuetan: bai ala ez?



MAIKA ALVAREZ
40 urte
administrarixa

Neurri hori ez jata bape gustatzen. Begittantzen jata lana ez zala sexuaren arabera emon beharko. Bakotxaren gaittasunen arabera emon beharko zan lana, gizona ala emakumia izan. Ez dot pentsatzen kuoten kontua emakumientzako onuragarrixa danik.




JOSE MANUEL DE PEDRO
54 urte
zuzendari teknikua

Kuotiena neurri positibua izan leike, pertsoniak dakan baloria bera-ri eskatzen jakon lan horretara egokitzen bada behintzat. Begittantzen jata lan batian jarduteko pertsona bakoitzak emon ahal dabela hartu bihar dala kontuan, gizonezkua ala emakumezkua izan.

VITORI IRIONDO
59 urte
bihargiña

Ondo ikusten dot kuoten asuntua, baiña normalian ez dala emoten begittantzen jata. Ixa beti gizonezkuak dira gehixengua. Holan, begittantzen jata komenigarrixa dala emakumien kuota minimo bat ipintzia, egoeria alda ahal izateko.



JOSEBA LEGORBURU
47 urte
funtzionarixua

Gaur eguneko egoeria ikusitta, neurri egokixa dala begittantzen jata kuota bat jartzia. Ez dot txarto ikusten diskriminaziño positibua deitzen jakona egittia halako kasuetan, egoeria hobetzeko bada behintzat.



ARTOLA

jatetxea

ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

Solomo iberikoaren carpaccio-a
Etxeko foie-a
Alkatxofak almejekin

Legatza plantxan edo
Bakailao Club Ranero erara

Solomilloa plantxan edo
Ahate confit-a

Degustazio postrea edo
Limoi sorbetea cavarekin edo
Txokolate mousse-a Armagnac erara

Etxeko Errioxako krintza ardoa,
sagardoa edo beste

Astelehenetik
barixakura
EGUNEKO
MENUA
16 €
krintzarekin

Tokia gordetzeko:
943206348

25 € + BEZ

EGOITZA NAGUSIA
Bilburieta 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errausketa labea
Egokibonari (Signo poligonari).
Partikular, multo eta aseguru enosi zerbitzuak
Koroak - Eskelak - Urteurrenako eskelak
Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen zaizkigu
Nazio eta Nazioarteko traslakadak

Mugica
Ehorzketa
Errausketa labea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

San Juan kalean eta Argatzako Jardinetan dauden gazteen lokal bi daude ETB 3-k eskaintzen duen 'Lokaleroak' saioko finalean. Ikusentzuleek hilaren 24ra arte izango dute gustukoaren duten lokalaren alde bozkatzeko aukera www.eitb.com/eu/gaztea/lokaleroak webgunean. Zorte on bioi!

Lokaleroak' saioko 7. asteko irabazleak izan ziren San Juan kalean lokala duten gazteak. 13 neska-mutil batzen dira denda baten azpian kokatzen den lokalean, nahiz eta lehen pertsona gehiago ziren. "25 bat ginen lehen eta beste 3 lokal izan ditugu orain arte". San Juan kalekoan urte eta erdi daramate eta benetan gustora daudela ematen du. "Ez dugu arazorik zaratarekin (denda baitago goian) eta, gainera, lasaiak gara. Asteburu gauetan hemen batu eta ez gara oso berandu iritetzen... juergan noski".

Lokaleko kide bat 'Lokaleroak' saioko arduradun baten laguna izanik, lehiaketaren berri jaso zuten eibartarrek eta parte-hartzea erabaki zuten. "Udan etorri ziren grabaketa egitera eta jende gutxi zegoen lokalean, baina ondo pasatu zuten".

Argatzako Jardinetako lokalekoek ere primeran pasatu zuten grabaketan. Eurek ere ez zuten segundu bat itxaron parte-hartzea



Argatzako mutilak zer afaldu erabakitzen. / ETB



Eibarko talde bi 'Lokaleroak' ETBko saioko finalean

erabakitzeko. "Hasiara batean saria koadrila osoarendako Ibizara bidaia zen. Azkenean, Saloura bidaia irabaziko du lehenak, autobusean eta ez guztiontzako, eta bigarrenak Sagardotegian afaria jasoko du. Horietako bat lortzen badugu, primeran!".

Argatzakoak beste lokal bitan egon dira aurretik. Bata, San Pio eliza alboko lokaleko batean, "estreinakoa izan zen". Eta bestea, Ibergain kaleko tailer zahar batean laupabost urtez. "Jaiak egiteko aproposa zen, baina hotza egiten zuen, hezetasuna zegoen, eta 2010ean laga eta Argatzakoa hartu genuen. Hemen txintxoagoak gara, erabilpen ezberdina egiten dugu eta ingurukoekin hobeto moldatzen gara".

Saloura bidaia

Eibarko lokal biek 'Lokaleroak' saioan izan zuten agerpena ikusgai dago webgune ofizialean eta botoa ematea oso erreza da. Sa-

riei dagokienean, lokal bozkatuenak Saloura bidaia irabaziko du. Hain zuzen ere, lau izarreko Villa Romana hotelean eta mantenu erdian 10 lagunentzako asteburu bateko egonaldia. Bigarrenak, hamar lagunentzako bazkaria Olaizola Sagardotegian. Eta botoa ematen dutenen artean, Urdaibain kokatuta dagoen Muruetako Ibaigune Hotelean bi gaueko egonaldia (afariak eta gosariak barne) zozketatuko da.

San Juan kaleko lokaleko gazteek ez dute lehiaketa irabaztea espero, nahiz eta euren saioan garaile ateratzen. "Eibarren talde bi egonda, uste dugu herriko botoak banatu egingo direla". Argatzako Jardinetakoak, bestetik, baikor dira. "Eibartarengan konfidantza daukagu. Herriak beti eman die bultzada beharrik dituzten eibartarrei, hortaz, espero dugu talde eibartar biak garaile suertatzea".

Bost egun besterik ez dira geratzen botoa emateko epea amaitzeko eta klik soil batek saria Eibarrera ekar dezake. Baina nora? San Juan kalean edo Argatzako Jardinetan izango al dira algarak? Agian bietan.

aldatze

www.aldatze.org

Arroza, lekaleak, pasta, hegaluzea oliotan, sardinak oliotan, azukrea, konpresak, olio, helduentzako pardelak... Saharako herriaren aldeko euskal karabana solidarioa martxan da berriro ere eta, beste ekimenen artean, aipatutako produktu horiek jasoko dituzte urtarrilaren 31ra arte herriko merkatalgune handietan, ikastetxeetan eta farmazietan batez ere. Asteburu honetan, gainera, bai zapatuan eta baita domekan ere, bigarren eskuko liburuen salmenta egingo da Untzagan, Sahara-Eibar fundazioarentzako dirua jasotzeko asmoz.

Eibarko Eroski, BM, Dia, Lidl, Proxim (Villalba), El Corte Inglés... Janaridenda gune handi horietan hainbat orga edo karro ikusiko dituzue hilabete honetan, Saharara bidaltzeko janariak batzeko presatutakoak; euren ondoan horren berri ematen duen informazioa ere izango da. Horretaz aparte, kanpainarekin bat eginda, farmazia guztietan ere jasoko dira *"nagusindako ipur-zapiak, konpresak eta medikamentuak"*, antolatzaileek diotenez. Lehenengo urtea da medikamentuak jasotzen direla, *"baina ego-kitzat jo dugu bertako dispensarioetan-eta banatzeko aukera dagoelako"*.

Aurreko urteetan horrelako kanpainetan jasotakoa Bergarako taldearen bitartez banatzen zuten, *"baina orain zuzenean egingo dugu, elkarteak ere sortu baitugu"*. Maiatzaren 9an sortu zuten fundazio edo elkarte berria, helburu berarekin Eibarren hainbat lagun zihardutela ikusi eta gero: *"Batzuk Sahararen egon eta motibatu ginelako, beste batzuk janariak biltzeaz arduratzen zirelako, bigarren eskuko liburuak saltzen zihardutenak beste alde batetik... konturatu ginen helburu berbera genuela guztiok eta elkarteak sortzea pentsatu genuen"*, dio German Amuategi sortzaileetako batek. Sahara-Eibar deitzen da elkarte berria, estatutuak ere onartu dizkiote eta diru-laguntzak eskatzeko bideari ekin diote. *"Banke txeeekin eta Udalarekin biltzekotan gaude; dena dela, kontua zabaldu dugu Euskadiko Kutxan (Laboralean) eta lagundu nahi duen edonork aukera du bertan (3035 0023 990230081679)"*, dioskue.

Liburu-salmenta bihar eta etzi

Bihar eta etzi, goizez eta arratsaldez, egingo duten bigarren eskuko liburu sal-

Saharako herriarekin Solidarioa izateko aukera bikaina

mentak, bestalde, bigarren edizioa biziko du aurten. *"Iaz arrakasta izan zuen, Ayerbe liburudendakoak ere parte hartu zuen eta liburuak merkeago erosteko aukera polita da. Jakina, gainera, diru hori Saharako kausarako erabiliko dela"*.

Sahara-Eibar elkarteak aipatutako superfizie handietan izango dira bihar goizean informazioa banatzen eta, aldez aurretik, ikastetxeetan izan dira gazteenei Sahararen berri emateko. Jasotako produktu guztiak bildu eta *"Txontan dugun lokalera eramango"*



Eibar-Sahara elkarte berria sortu dute gure herrian Saharari laguntzeko asmoz. / SILBIA HERNANDEZ

ditugu; Eibartik kanpo, Elgoibarko zentroena (ikastetxeak, Ikastola, IMH, Netto, Eroski...) ere gure gain hartu dugu". Jasotako guztiak Saharako herriaren aldeko euskal karabana solidarioaren irteerarekin koinziditzen du;



Honako moduko kartelak izango dira janari dendetan jakiak jasotzeko orga edo karroen ondoan.

azken hori otsailean egiten da, errefuxiatuen kanpamentuetako egun handiaren inguruan urtero egiten den nazioarteko maratoni solidarioaren inguruan.

35 urteko arazoa

Badira 35 urte Saharako biztanle asko eta asko errefuxiatuta bizi direla: 200.000 lagun inguru dira eta desertuko lekurik okereanean daude, Aljeriako Tindufeko "hamadan". Mendebaldeko Sahara da Afrikan deskolonizatu gabe dagoen herrialde bakarra: konponbide bakarra 60.eko hamarkadan NBE-ren agindu batekin hasi eta "Madrilgo Akordioak" izenekoen bidez 1975ean Espainiako gobernuak Mendebaldeko Saharako lurra lege kanpo Maroko eta Mauritaniako gobernuen esku laga zituenean zapuztu zuten deskolonizazio-prozesuarekin amaitzea da.

Zer egin behar den? Nazioarteko legeria bete besterik ez: Nazio Batuen aginduari jarraituz, autodeterminazioari buruzko erreferenduma egin, horren bidez, saharai guztiok euren iritzia adierazteaz gain, askatasun osoz erabaki ahal izango baitute nola bizi nahi duten euren herrian.



"Matsarian zerbait gertatzen ari da", Matsarixari buruzko erakusketa interaktibua zabalduko dabe gaur arratsaldian Portaleko erakusketa aretuan. Otsaillaren 4ra arte ikusgai egongo dan erakusketan Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako "Eraikuntza Jasangarria eta Efizientzia Energetikua" izeneko masterraren hirugarren ediziñuan, 2010/2011 kursoko ikasliak taldeka egindako proposamenak ezagutzera emongo dittue hainbat panel erabillitta. Herrittarreri modu jasangarri batian auzuari beste itxura bat emotia posible dala erakutsi nahi detse herritarren parte-hartziari zabalik egongo dan erakusketaren bittartez.

Reakt kolektibuen eskutik antolatutako erakusketia ohiko ordutegian, martitzenetik domekara 18.30xetatik 20.30xetara egongo da zabalik gaur bertan hasi eta hurrengo hillaren 4ra bittartian. Reakt kolektibua arkitektura eta hirigintzaren bittartez lehendik badaguan hirixaren eraldaketan emoten diran jokatibidiak ikertziarekin lotuta duguaz interes eta kezka berberak dittuen pertsonak biltzen ditudan taldia da.



Zer dihardu gertatzen Matsarixan?

Izan be, Reakt kolektibua "Eraikuntza Jasangarria eta Efizientzia Energetikua", Rufino Hernández eta Fernando Bajok zuzendutako masterraren hirugarren ediziñuaren barruan jaixo zan: "Ikasturtia amaittu ondoren, ikasle talde batek lanak esparru akademikotik kanpora etertzeko gogua zekala azaldu eban, gizartia informau, sensibilizau eta konzientziazteko aukeria eguala ikus eban-eta".

Ideiarekin erabat ados agertu zan masterraren Hirigintza moduloko arduradunetako bat eta, holan, 2011ko uztaillaren 27xan Donostiako terraza batian alkatuta, bederatzi andrazkok Matsaria Proiektua abian ipintzia erabagi eta kolektibua sortu eban. Deborah de Miguel Landiribar, Arantza García Fermín, Arantzazu Goya Castilla, Izaro Huegun Galarraga, Patricia Ma-

rin Illera, Oihana Olloquiegui Arrayago, Claudia Pennese, Estibaliz Sanz Reyero eta Andrea Tamés Cortés dira Reakt kolektibua sortu eban bederatzi andrak.

Hamaika oztopo gainditzeko formulak



Euretako batek, Claudia Pennesek azaldu deskunez, "ediziño bakoxtian ikasliak lan praktikoa burutzen dabe eta 2010/2011ko ediziñorako, Eusko Jaurlaritzaren laguntarekin, praktikia Eibarren, Matsarixa auzuan garatzea erabagi genduan, bestiak beste tokixa aurretik be ezagutzen nebalako eta bere hirigintza eta ingurumen arazuengaittik zein bere degradaziño mailla altuarengaittik egokixa begittandu jakulako".

Horretarako, masterraren parte hartu eban ikasliak taldeka

hainbat proposamen landu zittuen, zazpi totalian, eta horretako sei ezagutzeko aukeria izango dau erakusketara gerturatzea erabagitzen dabenak. "Matsarian zerbait gertatzen ari da" izenburuari jarraituta, oztopo arkitektonikuak, kontrolik eta planifikaziño bateri jarraitu barik gertatutako hazkuntzak, luzaruan erabilli barik duguaz erakiñak eta beste hamaika oztopuak gainditzia posible dala erakutsi nahi dabe Reakt kolektibokuak. Are gehixago: horrek guztiak baliatuta auzuari bestelako itxuria emotia posible dala erakusten daben proposamenak herritarrekin partekatu nahi dittue, herrittarreri euren inpresiañuak eta iritzixak emoteko bidia zabaldua.

Eztabaida eta bisita gidatuak


Bestalde, eta erakusketaren osagarri modura, hainbat ekitaldi antolatu dittue. Gaur bertan, 18.30xetan erakusketaren inauguraziñuaren aurretik, 17.00etan Miguel de los Toyos alkatiak, Rufino Hernández Minguillón eta Fernando Bajo Martínez de Murguía masterraren zuzendarixak, masterreko ikasliak eta Reakt kolektiboko kidiak jardungo dabe Portale-



CLAUDIA PENNESE Reakt kolektiboko kidea “Eibarko identidadiaren zati bat dago Matsarixan”

**- Zelan sortzen da Matsari-
xaren gaiñeko proiektua?**

Abiapuntua Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako “Eraikuntza Ja-sangarrixa eta Efizientzia Energetikua” masterra da eta, horri jarraituta, Matsarixa au-zua aukeratu genduan ikasliak taldeka euren praktikak egitteko. Praktika horretatik ikaslien 7 proposamen urten



eben eta proposautako 7 horretatik 6 ipiñiko dira ikusgai era-kusketan, taldietako batek ez dabelako parte hartu nahi izan.

- Eta zergaitik erakusketia?

Ba oiñ arte esparru akademikan bakarrik partekatutakua erakusketa bat antolatuta herritarrekin orokorrian partekatzia pentsau genduan, balixo orokorragua edo emon nahian. Ho-rregaittik, erakusketan interakziñua billatzen dogu, jendiaren inpresioñuak eta iritzixak modu ludikuan jasoko dittugu. Izan be, jendiari galdetzen ibilli garanian, iñork ez dau pentsatzen Ma-tsarixa recuperau leikianik eta guk beste aukera batzuk bada-guazela erakutsi nahi detsagu.

- Izan be, Eibarren behintzat nahiko ohikua da Matsarixa moduko tokixekin topo egittia.

Egixa esan, Deba baillaran, industrializaziñuaren garapena oso modu azkarrian eta planifikau barik emon dan beste toki-xetan moduan, nahiko tipikua da etxiak eta fabrikak nahastau-ta agertzia, Matsarixan pasatzen dan moduan. Parkian eraiki-ñak egotiak balixo erantsixa emoten detsa auzuari, eraikiñak erausten hasi ezkeru hondakiñak etaraziak kostua daka, era-kiñen hasiaki be... Azken batian Eibarko identidadiaren zati bat adierazitta dago bertan eta guk hori atzera be asmatu nahi izan dogu.

an. Bestiak beste eraikuntza ja-sangarrixaren masterra, hirigintza arduratsua. Matsarirako egindako proposamenak, parte-hartze estrategixak eta era-kusketiaren dinamikia azalduko dittue.

Hortik aparte, hillaren 25era-ko eta 28rako Matsarixara bisita gidatu bana antolatu dabe

Reakt kolektibokuak: 12.00xe-tan Portaleatik urten eta mini-busarekin Matsariara juango dira, han bertan azalpenak emoteko gertu (Portaleara bueltia 13.30xak aldera egittia dake aurreikusitta).

Eta erakusketia amaitziare-kin batera, hausnarketarako tartia be hartuko dabe: otsailla-

Programia

Barikakua 20

18.30.- Erakusketia zabaltzia eta piskolabisa. Portalean (erakusketa aretuan, 2. pisuan).

Eguaztena 25

12.00.- Portalea eraikiñetik urteeria minibusian, Matsarixan bisitia egitteko (Portaleara bueltia 13.30xetan).

Zapatua 28

12.00.- Portalea eraikiñetik urteeria minibusian, Matsarixan bisitia egitteko (Portaleara bueltia 13.30xetan).

Astelehena 4

12.00.- Ondorixuak eta eztabaida. Portalean (2.).



Masterreko ikaslien proposamenak hainbat azalpenekin lagundutako paneletan presentauko dittue.



ren 4an erakusketaren ondo-
ranguak komentauko dittue Ig-nacio de la Puerta Eusko Jaur-laritzako Etxebizitza sailleko zuzendarixak, Reakt kolektibo-ko kidiak, Miguel de los Toyos alkatiak, Félix Errasti Maixa-ren ordezkariak eta Fernando Ba-jo Martínez de Murguía maste-rren zuzendarixak.

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



ITURGINTZA

 **MUGICA**
ITURGINTZA

*AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...*
HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24

KRISTALAK

 **ACHA** *Kristaldegia*
ERREKATXU, 3^{an}
KRISTALARLOKO SOLUZIOAK
c.acha@euskalnet.net
eta faxe: 943 20 39 03

PINTURAK

 **AIXA**

Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etzerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxe.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea

 **Nexa Autocolor**

PINTURAS ARRATE, S.L.

- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A
parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxe: 943 70 06 89

 **E Pinturas**
Elias e Hijo, S.L.

**pintura eta estaldura
mota guztiak**

BARAKALDO, 7
Telefonoa: 943 12 05 02
Mobilak: 618 27 28 91 / 639 76 27 97

 **MALVAR**
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

Pintura
Goi mailako dekorazioa

Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxe: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98

 **MAYO**

VICTOR GONZALEZ FRAIZ
PINTURA OROKORREAN

**BARNE eta KANPOko dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...**

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

SARRAILAGINTZA

 **GILTZAK**

Era guztiako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalakuntzak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guztiako giltzen kopiak
Trabatutako atek eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391
(08.00etatik 24.00etara)

Arragueta, 3 www.giltzak.com
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxe. 943 20 86 99



Areto-foballeko luxuzko neurketa

ARETO-FOBALLAREN JARRAITZAILEEK EZ DUTE HORRELA KO AUKERARIK GALDUKO. 1. mailan jokatzeko diharduen Ríos Renovables - Riberas Navarra Olaizaga kiroldegian izango da eguaztean, arratsaldeko 20.00etan hasiko den partiduan, Concepto Egileri aurre egiten. Espai-

niako selekzioak partidua dua-eta, ligak atsedean hartu duelako sortu da maila handiko neurketa hau jokatzeko aukera. Talde nafarrak zazpi atzeritar ditu, brasildarrak gehienak. Sarrera doanekoa bada ere, jendea berarekin joan beharko da kiroldegira, instalazioaren edukiera mugatua delako.

Arakistain eta Martínez Escudería Eibarko pilotuak sarituta

AUTOMOBILISMO EUSKAL TXAPELKETEN AMAIERAREKIN BATERA, AURREKO ZAPATUAN Zallan egindako galan, Escudería Eibarko piloto bik jaso zuten aurtengo denboraldian irabazitako




sariak: Aitor Arakistain bigarrena izan da turismo mailan Mendiko Txapelketako sailkapen orokorrean eta Jagoba Martínez lehenengo junior mailan.

Aitor Arakistain eta Jagoba Martínez, Zallako ekitaldian.

Eibartarrak Kirolprobak Ligan

KIROLPROBAK LIGAREN BIGARREN EDIZIOA AMAITUTA, honakoak dira inguruko lasterketetan parte hartuz urtean zehar puntu gehien bildu dituzten gure herriko ordezkariak: Fermin Sebastian (38.a, 1.211 punturekin), Ernesto Etxabe (113.a), Joselu Baz (118.a), Cristina Loeda (161.a), Aimar Arakistain (166.a), Jon Etxabe (199.a), Aitor Zubikarai (205.a) eta Zigor Iriarte (236.a), puntu gehien bildu dituzten 300 onenen artean.



Esprint gogorra, erorketa eta guzti, Bolunburu Memorialean

GIZONEZKOEN SENIOR MAILAKO PROBAK AMAIERA EZIN BORROKATUAGOA izan zuen domeka eguerdian Olabeko zelaietan, Eneko Agirrezabalen garaipenarekin; berarekin estu lehiatu zuen Sergio García erori zen azken metroetan. Jose Antonio Blanco iazko garailea 3.a izan zen. Emakumezkoen mailan, Ainhoa Sanz nagusitu zen hasieratik amaieraraino, Lourdes Oiarzabal eta Rosi Talavera beteranoaren aurretik (azken honek azken unean gaudituz zuen Eibarren bizi den Cristina Loeda galiziarra).

Eibarko Klub Deportiboak atleta multzo bikaina aurkeztu zuen



eta onenen artean izan ziren Juan Jose Malvar betaranoa (2.a), Amaia San Martín alebina (4.a), Pello Osoro promesa eta Julen Terán infantila (6.ak), Odei Jainaga kadetea eta Andoni Egurrola infantila (7.ak) eta Jon Astigarraga infantila eta Naia Sáez alebina (8.ak).

Mendi Federazioak antolatutako hiru ikastaro hurrengo asteburuetan

GIPUZKOAKO MENDI FEDERAZIOAK ANTOLATUTA, HIRU IKASTARO EGINGO DIRA hurrengo asteburuetan: urtarriaren 28 eta 29koan mendiko eski ikastaroa egingo da Mendebaldeko Pirinioetan, helburutzat hartuta eski igoaldi eta zeharkaldietarako beharrezko prestakuntza lortzea (prezioa 110 eurokoa da); otsailaren 4 eta 5ekoan, izotz eskalada ikastaroa egingo da Bielsako Ipar aurpegian, eta horko helburua 80° arteko zailta-

sunak dituzten urjauzi izoztuetan igoerak segurtasunez egitea izango da (prezioa: 120 euro); eta, azkenik, otsailaren 11 eta 12koan, elur mota guztietako eski tekniken ikastaroa egingo da, ahalegin txikiagoarekin segurtasun handiagoz moldatzeko zeharkaldietan (prezioa 170 eta 200 euro artekoa izango da, federatuta egon ala ez). Informazio gehiagorako, gmf-federatuak@kirolak.net helbidera jo dezakezue.



Ibai Díez txapelkun Asola-Berrin

EIBARKO HIRU-TXIRLO ELKARTEAREN 50. URTEURRENAREN EKITALDIEN BARRUAN, San Anton txapelketa jokatu zen aurreko zapatuan Azitaingo bolatokian. Txapela etxean geratu zen, Ibai Díez nagusitu baitzen, Jose Luis Solagaistua taldekidearen eta Elgetako Sebastian Aranzabalen aurretik. Emakumezkoetan Miren Díezek, Ibairen arreba, irabazi zuen. 51 bolari izan ziren guztira, sei elkarte ordezkatzan.



Eibar Hierros Anetxe sendo

URIBEALDEARI 5-23 IRABAZIZ, EIBAR HIERROS ANETXEK ONDO ERAKUTSI DU aurten ere mailaz igotzeko borrokatuko duela. Joko sendoa erakutsi zuten Isasaren mutilek Mungian eta ondo nagusitu zitzaizkien sailkapeneko hirugarrenei. Domekan, 12.00etan hasita, Ordizia B hartuko dute Unben. Bestalde, Eibarko taldeak bikain hasi du Gipuzkoako infantil mailako txapelketa eta eskolako alebinak Iruñean izan ziren.



Mendi taldekoen urte osoko egutegia

URTE BERRIAREN LEHENENGO EGUNEAN URKORA IGO ETA GERO, Hendaia eta Lizuniaga mendatearen arteko bidea egin zuten Klub Deportiboko mendizaleek aurreko zapatuan. Asteburu honetan, bihar eta etzi, autoerreskate ikastaroa eramango dute aurrera eta, hilaren azken asteburuan, Berroztegieta-Arrieta gaina-Subijana izango da eginbeharreko etapa.




Real Unión eta Errealzaleen bidaia

EIBAR KE-K REAL UNION HARTUKO DU BIHAR IPURUAN, arratsaldeko 16.00etan, ETB-k zuzenean emango duen partiduan. Bestalde, Eibarko Errealzaleak bidaia antolatu du Bartzelonara, Realak bertan jokatu duen partidurako: otsailaren 4an joan eta 5ean bueltatu dira, partidua amaitu ondoren. Prezioa 75 eurokoa da eta interesatuek Juanito tabernara jo dezakete (943-121657).

Buru-belarri dihardu lanean Manix Mandiolak gidatzen duen Eibar KE play off-ean sartzeko. Horretarako, zaleen beharra izango dute eta talde armaginak bazkide kanpaina dauka martxan. Otsailaren 3an amaituko da eta klubaren bulegoetan egin ahal izango da, astelehenetik barixakura, 17.00etatik 20.00etara.

GERGORI PRIETO
(Eibar KE-ren administraria):

"Polita litzateke 3.000 bazkide tara iristea"



- Nola doa Eibar KE-ren bazkide kanpaina?

Espero genuen bezala doa. Egoera ekonomiko orokorra dela-eta baja batzuk ere espero genituen, baina erantzun nahiko ona jaso dugu momentuz. Gainera, oraindik kanpainak martxan jarraituko du otsailaren 3ra arte. Hasiera batean urtarrilaren 10ean amaitu behar zen, baina luzatzea pentsatu dugu.

- Zein berezitasun du kanpainak?

Bazkide batek beste pertsonaren bat ekartzen badu bazkide egiteko, bazkide berriaren abonua herena deskontatuko zaio bazkide zaharrari. Orduan, adibidez, zure zona berdinean kokatuko diren hiru lagun ekartzen badituzu, zure abonua doakoa izango da. Betiko bazkideentzat errekonozimendua egiteko modu bat da eta, bide batez, honek bere inguruan lagunak bazkide egitea animatzeko balio dezake.

- Bazkideen bajak egon direla diozu. Asko izan dira?

Aurreikusten genuen kopurua. Ez ditugu denak zenbatu, baina kopuru normala izan da. Egoera ekonomikoa kontuan hartu behar da, hildakoak ere egon dira, kanpora ikastera joan direnak, asteburuan Eibarren ez daudenak...

- Prezioak igo egin dira iazko kuotekin alderatuta?

Ez, aurrekoei eutsi zaie; prezio bera daukate abonuek.

- Taldeak, gutxienez, erantzun ona eman du aurten ere, play off postuetan kokatuta baitago.

Argi dago garrantzitsua dela taldea ligan ondo egotea jendea lpuurara erakartzeko.

- Zenbat zale joaten da partiduetara?

Iazko denboraldiaren antzerakoa da partiduetara doan zale kopurua, agian pixka bat gehiago. Hala ere, 2.684 bazkideetik 1.400 dira partiduetara doazenak. Partiduetan 1.800 bat lagun egoten dira bataz-beste lpuuran.

- Ordutegiekin ere gorabeherak egon ziren denboraldi hasieran.

Saiakera egin zen ea jende gehiago animatzen zen lpuurara joaten, baina argi geratu zen jendeak nahiago duela domekan 5etan partidua ikustea. Domeketan kopuru zehatz bat doa beti. Telebistak ez badu kontrako agintzen, domeketan izango dira etxeko partidua.

- Zein bazkide kopururaino heldu nahi du Eibar KE-ak?

Polita izango litzateke, kopuru borobila ipintzearen, 3.000 bazkidera iristea, baina hortik hurrun gabiltza momentuz. Oso garrantzitsua da bazkideen ekarpena, iazko utsiapen kontuan hori %18,89koa zelako eta aurten %28,7koa. Beraz, gero eta bazkide gehiago eduki, Eibarrentzat askoz hobea izango da ekonomikoki eta baita hiriarentzat ere.

Dantzan.com, hartzek neguan egiten duten bezala, lozorroan sartu dela dio Oier Araolazak. Hamar urteko ibilbidean dantzaren munduko albisteak, ekimenak eta ikastaroak bultzatu ditu euskeraz, dantzaren komunitate sendoa sortuz eta bere bateragune bihurtuz. Lozorrotik esnatzeko ahaleginak egiten dihardu.

OIER ARAOLAZA, dantzan.com:

"Bolondres mailan eutsi beharko diogu webguneari"

- Zeintzuk izan dira dantzan.com ixtearen arrazoiak?


Ekonomikoak. Dirulaguntzekin eta formakuntza alorrean egindako lanekin funtzionatu izan dugu. Bai batzuk, zein besteak, krisiaren eta erakundeen laguntzaren jaitzieraren ondorioz, behera egin dute; eta ia, 2011 amaieran, kolpe handia jaso genuen eta, batez ere, oraindik eta okerragoak ziren 2012 urterako aurreikuspenak. Orain arte jaso izan ditugun partida batzuk oso-osorik desagertzen ziren.

- Webgunea bisitatuz gero, antzematen da dantzaren bilgune bezalakoa dela dantzan.com, dantzaren komunitatea batzen duena.

Dantzan.com ez da izan bakarrik hedabide bat, komunitatea baizik. Euskal Herrian dantza tradizionalaren inguruan lanean diharduen jendea bildu da parte-hartzen, laguntzen eta bizitzen. Dantzan.com-ek aukera eman du komunitate hori kontaktuan jarri eta proiektuak elkarrekin egiteko. Orain, komunitate horrek ikusten du bere oinarria desagertu daitekeela eta kezkatuta dago.

- Dantza berba egiten da webgunean, baina kontua da euskeraz egiten dela. Itxierak euskerari ere kolpea ematea suposatzen du?

Dantzan.com-ek euskerarekin izan duen lotura garrantzitsua izan da, orain dela 10 urte webgunea sortu zenean dantzari buruzko komunikazioak, urriak zirenak, gazteleraz edo frantsesez zeudelako. Ez da bakarrik dantzan.com-i esker, baina dinamika hori irauli egin da. Gaur egun, euskal dantzaren alorrean komunikazioa, harremanak eta informazio zabalaketa, batez ere eta nagusiki,



euskeraz egiten da. Lortu dugu euskera izatea dantzaren eguneroko jardueran lehenengo hizkuntza.

- [Dantzan.com](http://dantzan.com) Kezka Dantza Taldetik sortutako ekimena da, ezta?

Hala da. Momentu batetik aurrera konturatu ginen Kezka izan zezakeen eragin esparrua baino askoz ere dimentsio handiagoa hartzen zuela ekimenak, azken finean Euskal Herriko dantzari, dantzazale, eta taldeek erabili eta bultzatzen zutelako. Dantzan.com eta Kezkaren arteko lotura onuragarria izan da alde bintzat. Bestetik, nahiz eta momentuz lan profesionala eten beharrean egon, ez daukagu elkarteak ixteko asmorik. Kezka bolondres mailan funtzionatzen duen moduan, dantzan.com ere bolondres lanaren bidez mantentzeri pasa beharko da. Dokumentazioa, zerbitzarian ditugun datu guztiak... dantzaren sektorearen eskura egoten jarraituko dute, eta zaintzen, gordetzen eta ahal den neurrian kanporatzen saiatuko gara.

Elkarrizketa osoa:
www.etakitto.com



Lagun Taldearen ikuskizuna

BIHAR ETA HILAREN 28-AN, EMANKIZUN BIKOITZEAN AURKEZTUKO DUTE LAGUN TALDEA adimen urritasuna dutenen elkarteak aurtengo ikuskizuna, Hezkuntza Esparruan 17.30etatik aurrera. "Mentiras a euro" izenburuko lana girotzeko nahaste-borrasteak nagusi diren azoka aukeratu dute eta, betiko martxari jarraituta, musikarekin lagundutako interpretazioa landuko dute Lagun Taldean diharduen gazteek zein begiraleek.

Antzerkia Ados Teatroarekin

ADOS TEATROAK GAUR 20.30-ETAN "WILT, PANPINA PUZGARRIEN HILKETA" ikuskizuna taularatuko du Coliseoan. Garbi Losadak zuzenduta, Mikel Laskurain, Isidoro Fernández, Aitziber Garmendia, Miren Gojenola, Koldo Losada eta Fernando Ruiz aktoreek jardungo dute eszenatokian, itxaropena galduta duen Henry Wilt izeneko gizonaren gorabeherak antzetzten. Sarrerak ikuskizuna hasi baino ordubete lehenago ipiniko dituzte salgai leihatilan.

Yoga ikastaroa beteta

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK OTSAILA ETA MARTXORAKO ANTOLATUTAKO yoga ikastaroa beteta dago eta, beraz, ezin izango da izenik eman. Otsaila eta martxoko martitzenarako aurreikusitako ikastaroa bete eta gero, hilabete bi horietako eguenerako beste ikastaro bat antolatu zuen...eta kitto!-k eta bigarren hori ere bete egin da. 12ko taldeak izango dira eta arratsaldetan elkartuko dira...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan, Maite Ugarteburu irakaslearen gidaritzapean.




Gabonetarako postalak marrazten

EDERTO EMAN ZUTEN ZAPATU ARRATSALDEA AS BURGAS GALIZIAKO ETXEAK antolatutako Gabonetako postalak marrazteko lehiaketan parte hartzera animatu ziren neska-mutilek. Hainbat sari banatzeaz gain, antolatzaileek merienda goxoa eman zioten artista gazteei eta, gainera, hurrengo Gabonak zoriontzeko erabiliko duten postala irabazlearen marrazkiarekin egingo dute.

Danborradako kontzertua domekan Coliseoan

JOSE MIGUEL LASKURAIN EK ZUZENDUTA, USARTZA TXISTULARI TALDEAK, MUSIKEIBAR Txistu ikasleek, Cielito Musika Bandak eta Eibarko Danborradako ordezkaritza batek Danborradako Kontzertua emango dute domekan, 12.30etan Coliseoan. Urteroko moduan, San Sebastian egunaren inguruan danborradako hainbat piezarekin osatutako egitaraua eskainiko dute: "Donostiako Martxa", "Diana Txikia", "Diana", "Eibarko Herria", "Idiarena", "Urnietako ereserkia", "Eibarko Martxa-Alperrak", "Danborren Polka", "Mutriku Herria", "Erretreta", "Pantxika", "Hau dek Hau", "Katuska", "Debako Martxa" eta "Tatiago". Bestalde, Ustekabe fanfarrekoek estreinekoz jardun zu-



ten bart Donostiako danborradan, gauerdian hasi eta 3 orduz Altzo auzoko konpainietako batekin batera. Aurretik ere Donostiako danborradarekin bat egiteko gonbidatu izan dituzte eibartarrak, baina agenda kontuengatik ezin izan diote gonbidapenari baiezkorik eman atzora arte.

Usartzako txistulariak Bilboko Euskaldunan


AURREKO ASTEKO EGUAZTENEAN BILBOKO EUSKALDUNA JAUREGIAN 300 BAT IKUSLAREN AURREAN kontzertua eman zuten Usartza txistulari taldekoek eta, euren berbetan, *"bertan bildutakoei asko gustatu zitzaizkien hamar bat pieza eskaini ondoren, publikoak modu inprobisatuan kantuz lagundu zuen Jose Ignazio Ansorenaren 'Botxo' partiturarekin"* agurtu zuten emanaldia.



Eibarko taldea kontzertua eman aurreko entseguan.

Hiru artisten lanak Topalekuan

CHARO GIL, ELISABET EGUREN ETA MARI FRAN EREÑAREN MARGOLANAK hartzen dituen erakusketa gaur arratsaldean, 19.00etan zabalduko dute Topalekuan. Hilaren 29ra arte ikusgai egongo den erakusketa astegunetan 19.00etatik 21.00etara bisitatu daiteke eta zapatu eta jaiegunetan 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.




Pailazoaren ekitaldiak dataz aldatu du

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK GURASOAK BERBETAN ekimene-ko partaideentzat antolatutako Pantxika eta Txinparta pailazoaren emankizuna atzeratu egingo da. Urtarrilaren 29rako iragarritako bazegoen ere, otsailaren 12an egingo da azkenean. Portaleko areto nagusian izango da goizeko 11.30etan. Euskara praktikatzeko sortutako Gurasoak Berbetan mintzapraktika egitasmoan parte hartzen duten guraso eta seme-alabentzat izango da ikuskizuna.

Sostoaren emanaldi arrakastatsua

SAN ANTON JAI AOSPATZEN ZUTELA ETA, DOMEKAN ELGOIBARKO HERRIKO AN-TZOKIAN zarzuela emanaldia eskaini zuten Sostoa abesbatzakoek eta jendearen aldetik

oso harrera ona izan zuen ikuskizunak. Isabel Laspiur eta M^a Karmen Etxeberriak pianoarekin lagunduta, Sostoak Eibarren, San Andres jaien testuinguruan estreina-tu zuen ikuskizunaren parekoa taularatu zuen aurreko asteburuan, zarzuela ezagunetako abestiekin osatutako egitarauari jarraituta.



laburrak

LITERATURA-TAILERRETAN IZEN-EMATEA

Harixa Emoten ...eta kitto! Euskara Elkarteak sortutako literatura-tailerrek aurrera jarraitzen dute. Datorren martitzenean, urtarrilak 24, egingo dute hurrengo tertulia Antxon Narbaizaren "Periko Kintana: itsasgizona eta gudaria" liburuaren inguruan. Euskaraz irakurtzea gustuko duen ororentzat atea zabalik ditu tailerrak. Gutxi gorabehera hiruhiletik behin guztion artean aukeratutako liburua irakurri eta gero, haren inguruko tertulia edo tailerra egiten dute Narbaizak berak gidatuta, martitzenetan, 19.00etan. Izena eman nahi duenak 943200918 telefonora deitu dezake (Maidier).

PERIKO IRIONDOREN ARGAZKIAK

Ego Ibarra batzordeak Periko Iriondo kaxaginak Eibarren ateratako 100 argazki sarean jarri ditu bere webgunean (www.egoibarra.com), argazki-galerien atalean. Irudi gehienak Urko-Akondia-Kalamua aldean ateratakoak dira.

Nafarroako Unibertsitatean genetika irakaslea da Javier Novo eta 'Medikuntza eta Genoma: etorkizuna hemen dago' lelopean hitzaldia eskaini zuen martitzenean Portalean. Saioaren aurretik aldizkari honekin berba egin zuen, eta Giza Genoma, bizitza-luzera eta abarrez aritu zitzaizun.

JAVIER NOVO, Genetika irakaslea:

"240 urtetakoa izan daiteke bizi-itxaropena mende erdian"

- Askotan erabili den konzeptua da, baina zer da Giza Genoma?

DNAn (molekula oso luzea dena) genei buruzko informazio guztia daukagu, eta horren sekuentzia genoma da; giza-kien kasuan, Giza Genoma. Zelula guztietan dagoen molekula bat da, izaki bizia sortzeko behar diren beste molekula guztiak sortzeko informazioa duena. Enbrioi garapena hasten denetik izakia hiltzen denera arte, zelulek etengabe irakurtzen dihardute Genoma momentu bakoitzean behar dutena fabrikatzeko. Azken finean, oso molekula sinplea da, baina argibide-liburu bat bezalakoa, funtzionatzeko behar dugun informazioa duelako.

- 2001ean egin zen Giza Genomaren lehen irakurketa.

Beti geratzen dira hutsunak, baino osoki 2001ean amaitu zen bere irakurketa egiten.

- Sentsazioa da, hala ere, ez direla Giza Genoma irakurri zenean sortutako itxaropenak bete.

Irakurketaren amaiketaren berria zabaldu zenean, "badugu argibide-liburua", esan zen, teoriar hori dagoelako ea gaixotasunak zergatik garatzen ditugun, ilearen eta begien kolo-

rea, kolesterola eta pertsonen biologian eragina duten gauza guztien informazioa. Beraz, hori jakinda, berehala gaixotasunak sendatzea pentsatzen zen. Orain irakurketaren 10 urte bete dira, balantzea egin da eta ikusi da ez garela espero bezain urruti iritsi hainbat arrazoiengatik. Batez ere, pertsona ezberdinetan azterketa egiten hasi zelako, eta irakurritako Giza Genoma sekuentzia ideala zelako. Pertsona bakoitza ezberdina da, eta denok Giza Genoma badugu ere, ezberdina da kasu bakoitzean, klonak izango ginatkeelako bestela. Pertsona ezberdinetan Genoma aztertzen hastean ikusi ziren ezberdintzen gaituzten letrak, gaixotasunak garatzeko joera ezberdinak edukiarazten gaituztenak. Orduan, ikerlariak ahalegindu ziren erlazionatzen letra zehatz batzuk (pertsona batetik bestera aldatzen direnak), pertsona horiek gaixotasun zehatz batzuk izateko zuten joerarekin. 10 urte hauetan letra guzti horiek katalogatu eta erlazionatzen saiatu dira pertsonak gaixotasun bat edo beste jasateko duten joerarekin. Metodologikoki oso gauza zaila zen eta horregatik behar izan du hainbeste denbora. Zerba



egitea lortu da, baina lortu diren emaitzak garrantzia gutxiago dituztenak izan dira. Aldaera arraroenak aurkitzea falta da, zuk dituzun momentuan arrisku maila altua aurreikusten dituztenak.

- Epe-motzean aurreikusten da zentzu horretan emaitza-aren bat lortzea?

Edonor sendagilearengana doanean ez diote Genoma begiratzen, ez dagoelako informazio nahikoa horren gainean. Aldaera arraroenak aurkitzean edo horiek dituzten konbinazioak, erabilera handia izango du.

- Baina aurreikusi daitezkeen arazo guztientzako erremedioak existitzen dira?

Gauza batzuentzat bai, beste batzuentzat ez. Hau arazo handia da, lehen urteetan gauzak fidagarritasun handiarekin aurreikusi ahal izango direlako (40 urterekin kantzerra edukiko duzula, adibidez) eta honelako hainbat gauzek konponbidea dutelako, baina beste batzuk ez. Gaixotasun bat jasateko arrisku handia izan eta hori konpontzeko aukerarik ez duzula jakiteak, antsietatea sortu eta pertsonen bizitza alda dezake. Horren aurrean, nik proposatzen dut, adibidez, zuri diabetesa jasateko arriskua

eragiten dizuten letrak aldatzea, arazoa konponduko zelarik. Hori orain ezin da egin, baina agertzen ari da hori egiteko teknologia.


- Hitzaldian medikuntzan genomaren erabilerak sor dezakeen bizitza-luzeraren hazkundea komentatuko duzu. Zein zifratuz diharduzu?

Aurretik aipatutako guztiarekin, gaixotasunak aurreikusi daitezke eta, horietariko asko zahartzearekin lotura duten gaixotasunak dira. Orduan, aurreikusi eta modu batean prebenitu ahal badituzu, pertsonen bizi-iraupenean eragingo duzu. Bestetik, mende erdialderako Genomen letrak zuzentzen duen teknologia badaukagu, jendea zahartu egin ahal izango da kantzerra, alzheimerra edo parkinsona jasan gabe. Orduan, mendearen erdian pertsona batek jaiotzetik duen bizi-esperantza 120 bat urtetakoa izan daiteke. Birsorkuntza-medikuntzaren kontua ere hor dago. Horrela, zelula zaharrak aldatu egin ahal izango dira berriengatik zelula amen bitartez (arratoiekin aurten egin dira saioak). Guzti honekin, 120 urteko bizi-esperantza 240 urtera pasa daiteke.

Elkarrizketa osoa: www.etakitto.com

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, JULES, bi urte hauetan emon deskuzun bizipoza ez dogu-eta iñoiz ahaztuko. Paa!



Zorionak, GORETTI, bixar 11 urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez. Segi holan, goiztxoritxu!




Zorionak, JULEN, harañegun lau urte bete zenduazten-eta. Muxu pillua famelixaren partez.



Zorionak, ALAIN, hillaren 17xan zazpi urte bete zenduazten-eta. Aupa mutil haundi! Gurasuen partez.




Zorionak, JULEN Blanco Gantxegi, atzo urte bi bete zenduazten-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, ALEX, domekan urtia beteko dozu-eta. Muxu potolo bat aitatxo, amatxo eta, batez be, Liberen partez.




Zorionak, FERMIN, atzo hamabi urte egin zenduazelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, XABIER Arregi, eguaztenian 11 urte bete zenduazten-eta. Famelixakuen eta lagunen partez.




Zorionak, LUKEN, hillaren 18xan urtia bete dozu-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, JULEN (hillaren 25ian egingo dozuz) eta MIKEL (14an bete zenduazten), bakotxaren 10. urtebetetizian. Jarraitu hain jator eta alai izaten. Muxu haundi bat famelixakuen partez.



Zorionak, MARIA (hillaren 25ian hamabi urte beteko dozuz) eta JORGE (8xan egin zenduazten urtiak). Ondo-ondo pasatu ospakizunian, famelixa guztiaren partez.



Zorionak, NORA eta Amama JOXEPA, hillaren 23an eta 26xan beteko dozuezen urtetxo "batzuren" aldia bakarrik izango dozue-ta. Tia Edurne, Tio Josu, Lur eta Iraiaren partez.



Zorionak, UXUE, martitzenian lau urte egin zenduazten-eta. Muxu haundi bat Ekain, aitatxo eta amatxoren partez.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)
20an: 22.30
21ean: 17.00, 19.45, 22.30
22an: 17.00, 20.00
23an: 20.30

"La fuente de las mujeres"
 Zuzendaria: Radu Mihaileanu



(2 ARETOAN)
20an: 22.30
21ean: 17.00, 19.45, 22.30
22an: 17.00, 20.00
23an: 20.30

"Nader y Simin"
 Zuzendaria: Asghar Farhadi



(ANTZOKIAN)
21ean: 19.45, 22.30
22an: 20.00
23an: 20.30

"La Dama de Hierro"
 Zuzendaria: Phyllida Lloyd



(ANTZOKIAN)
21ean: 17.00
22an: 17.00
"El Cascanueces" 3D
 Zuzendaria: A. Konchalovsky



horoskopoa

ARIES

Kanpoan hotza bada ere, bero-bero ibiliko zara aste osoan zehar. Sexuaz gozatzeko egun zoragarriak izango dira zuretzat orain datozenak.

TAURUS

Gauza higuigarri bat gertatuko zaizu. Burutik kendu ezin izango duzun zerbait izango da, baina besteei barrea eragingo die. Gaitz erdi!

GEMINI

Udaberria aurreratu egin da zuretzat. Tximeletak sentituko dituzu sabelean eta begiek irrifarrea margotzen dute zure aurpegian. Zorionak lagun!

CANCER

Egunak hastea kostatu egingo zaizu datorren astean, baina lanerako gogo askorekin igaroko duzu aste guztia. Ea sasoi horri eusten diozun.

LEO

Kirolari zoragarria zaude eginda. Gabonetan hartutako kilotoak erraz galdu dituzu eta harrigarriena da kirola egiten jarraituko duzula!

VIRGO

Gauza bat da gertatutakoa nola kontatu dizuten eta, beste bat, nola gertatu zen benetan. Ezustekoak saihesteko, ikertu zure kabuz.

LIBRA

Bizilagunak pozik dituzu. Ondo dago zure etxean nahi duzuna egitea eta, abestea nahi baduzu, abestea. Baina ez uste Grammy irabaziko duzunik.

SCORPIUS

Uff... Nolako errieta jasoko duzun asteburuan! Kontu gehiagorekin egin beharko zenituzke gauzak, inguruko besteengan gehiago pentsatuz.

SAGITTARIUS

Inoiz baino erakargarriago egongo zara datozen egunotan. Barrutik ederto sentituko zara eta hori zure kanpoko irudian nabaritutako da.

CAPRICORNIUS

Gaizkiulertu batek egoera bitxia pasaraziko dizu bihar. Ez da izango, gainera, lagun horrekin honelako zerbait gertatzen zaizun lehen aldia.

AQUARIUS

Ahalegin txikia eginez gero, ez pentsa etekin handiegirik aterako duzunik. Gehiagorako gai zarela argi daukazu. Tira ba, ez laga biharko eta egizu!

PISCIS

Astebururako zenituen planak bertan behera laga beharko dituzu. Lasai egon, hurrengo batean egin ahal izango dituzu plan horiek-eta.

Barixakua 20

TXOTX-A

18.15.- Sagardo-dastaketa.
21.00.- Txotx-aren hasiera, Patxi Usobiaga eskalatzailearen eskutik eta afaria (tokia dago nahi duenarentzat). Iruki sagardotegian.

ANTZERKIA

20.30.- "Wilt, panpina puzgarrien hilketak", Ados Teatroaren eskutik. Coliseoan.



Zapatua 21

LAGUN TALDEA

17.30.- "Mentiras a euro" Lagun Taldearen ikuskizuna. Hezkuntza Esparruan.

FILM EMANALDIA

18.00.- "Enredados" filmaren emanaldia. El Corte Inglés-ean (aretoan).

Domeka 22

KONTZERTUA

12.30.- Danborradako kontzertua, Usartza Txistulari Bandarekin, Cielito Musika Bandarekin eta Danborradako kideekin. Zuzendaria: Jose Miguel Laskurain. Coliseoan.

Martitzena 24

IKASTEN

10.00.- "Haurren literatura: umeein harremanak bideratzeko tresna (2. zatia)", Jone Arroitauregiren eskutik. Armeria Eskolan.

HARIXA EMOTEN

19.00.- Antxon Narbaizaren "Periko Kintana: itsasgizona eta gudaria" liburuaren inguruko tertulia. ...eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu, 11 solairuarteran).



Eguaztena 25

IKASTEN

09.30.- Oñatira irteera. Autobusa Ego Gaietik irtengo da (09.35etan Bidebarrietako geltokitik). Eibar-Arrasate (Arrasatetik Oñatirako autobusa 10.35etan, otordurako janaria norberak eraman beharko du).

BISITA GIDATUA

12.00.- "Matsarian zerbait gertatzen ari da" erakusketari lotutako bisita gidatua Matsariara, minibusen (irteera Portalea paretik, bertara buelta 13.30etarako dago aurreikusita).

Eguena 26

IKASTEN

10.00.- "Zahartzaro osasuntsua?", Enrique Arriolaren eskutik. Armerian.

EGO IBAR ZINE KLUBA

17.00 eta 21.00.- "No mires atrás" (Andrea Molaioli). Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan.

ARMERIAREN MENDEURRENA

18.00.- Armeria Eskolaren mendeurrenaren inaugurazio ekitaldia. Armerian (areto nagusian).

KALEETAN KANTUZ

19.30.- Kaleetan Kantuz-erako entsegua. San Andres elizako lokaletan.


SUDOKUA

5		9				1		
	8		2	9				
6		1	4				7	
		4	1		7	3		
	9				8	4		1
		7	8					
				6	3		1	
		3				6		4

DENBORAPASAK

7	3	4	8	5	1	8	2	6
8	1	2	6	7	4	5	3	9
5	9	8	8	3	2	7	1	4
1	8	3	5	9	6	4	7	2
6	7	9	2	4	8	3	5	1
2	4	5	7	1	3	6	9	8
9	5	8	1	6	7	2	4	3
3	8	1	4	2	5	9	8	7
4	2	7	3	8	9	1	6	5

AURREKOAREN EMAITZA



erakusketak

- Urtarrilaren 27ra arte
KOKO-MARRUAK. Armagintzaren Museoa.
- Urtarrilaren 29ra arte
CHARO GIL, ELISABET EGUREN ETA MARI FRAN EREÑAren margo erakusketa. *Topalekuan.*
- Urtarrilaren 30era arte
"UN DIA DE PESCA". *El Corte Inglés*ean.
- Urtarrilaren 31ra arte
JOSE LUIS GARCIA DE MADINABEITIAren argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*
OSCAR BLANCOren argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*
AINARA GARCIAren "Euskal Herriko txokoak" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
- Otsailaren 4ra arte
"MATSARIAN ZERBAIT GERTATZEN ARI DA". *Portalean.*
- Otsailaren 5era arte
"ETXEBERRIA: LEHEN URTEA". *Portalean.*

lehiaketak

- **Narruzko Zezen Sariak.**
Gaia: Antzez artikulua eta gidioak. Informazioa eta lanak aurkeztea: **Urtarrilaren 20ra arte,** (Hezkuntza Esparruan Egoitza Zentroan), 943208444 telefono zenbakian.
- **Toribio Etxebarria Sariak.**
Gaia: Enpresa ideiak eta proiektuak. Informazioa eta lanak aurkeztea: **Otsailaren 7ra arte,** www.bicberrilan.com helbidean.
- **Portada lehiaketa.**
XXIX. Día das Letras Galegas egitaraurako azala aukeratzeko lehiaketa. Informazioa eta lanak aurkeztea: **Otsailaren 28ra arte,** As Burgas Galiziako Etxean (Urkizu, 11 behean).

JAIOTAKOAK

- Amine El Hajji. 2011-XII-31.
- Maialen López Barinagarrementeria. 2012-I-3.
- Mikel Bergaretxe López. 2012-I-4.
- Xabier Otxoa Ugarte. 2012-I-7.
- Markel Casado Martínez. 2012-I-8.
- Garazi Alkorta Pousa. 2012-I-10.
- Andrea Valverde Romero. 2012-I-10.
- Iraia Blanco Calderón. 2012-I-12.
- Carla Pinilla Agirre. 2012-I-12.

HILDAKOAK

- Ignacio Unanue Ostolaza. 81 urte. 2012-I-12.
- Eliecer Martín García. 88 urte. 2012-I-13.
- M^a Rosario Murua Murua. 2012-I-13.
- Jose Gascón Sánchez. 90 urte. 2012-I-14.
- Narcisa Duque Sánchez. 85 urte. 2012-I-15.
- Miguel Guasch Lamadrid. 82 urte. 2012-I-15.
- Javier Eguren Larrañaga. 94 urte. 2012-I-17.
- Enrique Bernedo Elkororibe. 85 urte. 2012-I-18.

farmaziak

- 20, barixakua**
EGUNEZ Las Heras Larramendi (Calbetón, 19)
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)
- 21, zapatua**
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)
- 22, domeka**
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)
- 23, astelehena**
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)
- 24, martitzena**
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
GAUEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- 25, eguaztena**
EGUNEZ Urizar (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ Urizar (J. Etxebarria, 7)
- 26, eguena**
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- 27, barixakua**
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
GAUEZ Barandela (Z. Agirre, 4)

telefono jakingarriak

- SOS delak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DO-NOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi eta trasteroa. Igogailua. Guztiz berriztatua eta argitsua. 130 m². Tel. 626-203838.

– Eibarko Txikito kalean pisua salgai. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 56 m². Igogailua. 168.000 euro. Tel. 672-622774.

– Jardinetan kalean pisua salgai. 3 logela, egongela, jangela, sukaldea eta komuna. Kalefakzio zentrala etxe guztian. Sartzeko prest. Eguzkitsua. Tel. 688-873807.

1.2. Errentan

– Pisua alokagai Eibar erdialdean. Erabat berriztatua. 120 m². 900 euro. Tel. 670-779713.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Honda CBF 500 motorra salgai. 2007. urtekoa. 12.700 km. 3.500 euro. Tel. 943-530667.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Garajea salgai San Pion. Tel. 943-702231.

3.2. Errentan

– Garaje itxia alokagai Asua-Errekan. Tel. 616-959625.

– Garajea alokagai Arrate-Biden. 1. solairuan, itxia eta autoa garbitzeko tokiarekin. 90 euro. Tel. 679-310083.

– Ilea-paindegi berria alokagai, arazo personalengatik. Merke. Tel. 667-806737.

– Garaje itxia alokagai. Tel. 617-688311. Maria.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta garbiketara lanetarako. Tel. 674-481945.

– Neska arduratsua eskaintzen da garbiketara egiteko, umeak edo nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Orduka. Tel. 609-148861 eta 943-257815.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Esperientzia. Tel. 657-396018.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko (esperientzia), igeltsero moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 692-332871 eta 943-257815.

– Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.

– Emakume euskalduna eskaintzen da edozein lan egiteko Eibar eta inguruan. Tel. 606-502567.

– Neska arduratsua eskaintzen da arratsalde eta asteburuetan umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Esperientzia. Tel. 681-322442.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko jornada erdiz eta orduka. Tel. 618-052967.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 674-027961.

– Emakumea eskaintzen da tabernan lan egiteko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 669-966611.

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketara egiteko eta kamarero jarduteko. Tel. 686-077316.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Tel. 639-962219.

– Neska eskaintzen da garbiketara egiteko, nagusiak edo umeak zaintzeko, kamarero jarduteko eta ilea-paintzaile moduan. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 646-323154.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko-lanak egiteko. Externa eta orduka. Tel. 646-821678.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 634-256471.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 662-025906.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Tel. 608-406751.

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da garbiketara egiteko, sukaldari-laguntzeko eta kamarero jarduteko. Tel. 686-149562 eta 632-234597.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Tel. 671-121334.

– Neska eskaintzen da umeak arratsaldetan zaintzeko eta LHko klaseak emateko. Tel. 638-855268.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanetarako. Tel. 628-014327.

– Emakumea eskaintzen da orduka garbiketara lanak egiteko, tabernetan jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 630-820424.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanetarako. Tel. 638-338816.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanetarako. Tel. 632-541473.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 638-047847.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako. Tel. 683-554245.

4.2. Langile bila

– Odontologoa behar da astero 2-3 arratsaldetan Ermuko hortz-klinika batean. Urte biko esperientzia. clinicadentalcd@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– Irakaslea behar da akademia baterako. LHtik Batxilergo arteko klaseak emateko. Tel. 652-763264. laneskaintza@gmail.com

5.2. Eskaintzak

– Euskarazko klaseak ematen ditut, azterketarako: EGA, perfilak, Habe-ren mailak. Tel. 620-608065.

– Klase partikularrak ematen dira: Euskara, Matematikak, Fisika, Kimika. Talde txikiak. Tel. 699-069080.

– Irakasleak maila guztietako klase partikularrak ematen ditu. Lau lagunekoko taldeak. Talde berriak urtarilean. Tel. 685-739709. Patrizia.

– Bateria klaseak ematen dira. Lokal egokitua. Material ugari. Tel. 650-242368.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– "Sendra" botak salgai. 38 zenbakia. 50 euro. Tel. 699-532243.

– Errepideko bizikleta salgai. Zeus Shimano 105, karbonozko urkilekin. 2.000 km. Tel. 628-714824.

– Bizikleta estatikoa salgai, programekin. Oso egoera onean. 170 euro. Tel. 628-714824.

– Sehaska handia -ohe bihur daitekeena- salgai (1'44x0'79). Oso egoera onean. Tel. 600-454052.

– Ordenagailua salduko nuke. Ia berria eta egoera onean. Compaq. Tel. 653-167841 eta 943-208117.


– Sofa bi salgai: 3 plazakoa (2x0'88) eta bikoa (1'48x0'88). Beigek eta garbitzeko teladunak. 400 euro. Tel. 650-988799. Marian.

6.2. Eman

– Artzai txakur-kumeak oparitzen dira. Abenduaren 23an jaiotakoak. Tel. 600-464625.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Border Collie arrazako txakurra desagertu da, orain dela astebate, Azitain inguruan. 3 urte ditu, zuria eta beltza da eta eskumako belarria jausita dauka. Ikusten baduzue, deitu. Tel. 629-588627.



6.4. Bestelakoak

– Zure elkarte gastronomikoan bazkide berria behar baduzu, deitu. Tel. 646-293311.

– Binirozko diskoak, LP-ak eta singleak erosiko nituzke. Tel. 943-572057.

– Playmobil jostailuak erosiko nituzke, baita doan jasoko ere. Tel. 638-925415. Bittor.

ASTIGARRAGA

(SAN AGUSTIN 2 KALEA)



Puntu-lanak: Katia, DMC, Stop, Mondial, Bergere, Anny Blatt, Suavel, Bouton D'or, Nido, Bebe, Coats Fabra, Phildar, Prym, Knitpro, Viuda Sauquet, Bassols, Carlos Luna, Fildor.

Lentzeria: Petit Bateau, Babidu, Janira, Impetus, ZD, Punto Blanco, Avet, Set, Abanderado.

IKASTAROAK: Otsailan hasten dira. Anima zaituz!

943 204063

...eta kitto!-ren
itzulpen
itzu
itzu
zerbitzua



**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelera,
gaztelera,
euskaratik
eta ingelesetik
euskara.**

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.



- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.

elkartea@etakitto.com

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak




T. Etxebarria, 7

Tel. 943 70 23 84

Tel. 943 70 23 78




ZERBITZUA



ADMINISTRAZIOA



BILERAK



GESTIOA

EUKI

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

KOMUNITATEAK